

Ó euskara

(Por Juan San Martín)

I

*Vigoko itsas ubinak,
ikus bazenegi nire laguna?
Ene Jainkoa, laster baletor!*

*Itsas hiratuaren ubinak,
ikus bazenegi nire maitea?
Ene Jainkoa, laster baletor!*

*Ikus bazenegi nire laguna,
norengan dudan nire hasperena?
Ene Jainkoa, laster baletor!*

*Ikus bazenegi nire maitea,
norengan dudan mindura bandia?
Ene Jainkoa, laster baletor!*

II

*Mandaturia dut nirekin
nire laguna datorrela:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

*Nirekin dut mandaturia
nire laguna datorrela:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

*Nire laguna datorrela
eta osasunez esta bizirik datorrela:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

*Nire maitea datorrela
eta bizirik eta osasunez datorrela:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

*Osasunez eta bizirik datorrela
eta erregeren lagun:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

*Bizirik eta osasunez datorrela
eta erregeren adiskidemin:
Eta joango naiz, ama, Vigora!*

III

*Nire lagun eder hori, zatoz nirekin
Vigoko elizara, non baita itsasandi:
Eta ubinak begiratuko ditugu!*

*Nire lagun eder hori, zatoz zeure onez
Vigoko elizara, non baita itsas hiratua:
Eta ubinak begiratuko ditugu!*

*Vigoko elizara, non den itsasandi
eta hara datoz nire ama eta nire laguna:
Eta ubinak begiratuko ditugu!*

*Vigoko elizara, non den itsas hiratua
eta hara datoz nire ama eta nire maitea:
Eta ubinak begiratuko ditugu!*

IV

*Ai ene Jainkoa, orain nire lagunak baleki
Vigon bakarrik nagoela!
Eta maitemindurik nabil!*

*Ai ene Jainkoa, orain nire maiteak baleki
Vigon bakarrik aurkitzen naizela!
Eta maitemindurik nabil!*

*Zein bakar nagoen Vigon,
eta ez dut lagunik nirekin!
Eta maitemindurik nabil!*

*Zein bakar nagoen Vigon,
eta lagunik ez dakart nirekin!
Eta maitemindurik nabil!*

*Eta lagunik ez daukat nirekin,
nire begiok nerekin nigarrez baizik!
Eta maitemindurik nabil!*

*Eta lagunik ez dakart nirekin,
nire begi biok nigarrez izan ezik!
Eta maitemindurik nabil!*

V

Zenbat maite dituzu gartsuki lagun,
zatoz nirekin Vigoko itsasora:
Eta uhinetan bainatuko gara!

Zenbat maite dituzu gartsuki maite,
zatoz nirekin itsas hiratura:
Eta uhinetan bainatuko gara!

Zatoz nirekin Vigoko itsasora
eta nire launa ikusiko dugu:
Eta uhinetan bainatuko gara!

Zatoz nirekin itsas hiratura
eta nire maite ikusiko dugu:
Eta uhinetan bainatuko gara!

VI

Sakratuan, Vigon,
dantzatuz nire gorputz adeitsua:
—Amorioa dut!

Vigon, sakratuan,
dantzatuz nire gorputz mehea:
—Amorioa dut!

Dantzatuz nire gorputz adeitsua,
inoiz lagunik izan ez zuena:
—Amorioa dut!

Dantzatuz nire gorputz mehea,
inoiz maiterik ez zuena:
—Amorioa dut!

Inoiz lagunik izan ez nuenez,
sakratuan izan ezik, Vigon:
—Amorioa dut!

Inoiz maiterik izan ez nuenez,
Vigon izan ezik, sakratuan:
—Amorioa dut!

VII

Ai, ni ikustera nentorren uhinok,
esaten bazenegidaten
zergatik tardatzen duen nire lagunak
ni gabe?

Ai, ni begiratzera nentorren ubinok,
kontatzen bazenegidaten
zergatik tardatzen duen nire lagunak
ni gabe?